

# 2017. URTEKO SEGIMENTU ETA EBALUAZINO TXOSTENA

Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Plana 2017-2020

*2018ko urtarrilean aurkeztua*



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



Bardintasuneko  
aholkularitza

## AURKIBIDEA

---

1. Testuingurua .. .. .	3
2. Jardueren zerrendea .. .. .	6
3. Emaidza orokorrak. Betete-mailea .. .. .	8
4. Adierazleen segmentua .. .. .	14

## Eranskinak

**Aktak**

**Materialak**

**Komunikazioa**

**Argazkiak**

## 1.- Testuingurua

Zezeilaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerakoak, ezarten dau zeintzuk diran podere publikoen jardunean nagusi izan behar daben printzipio orokorrak emakumeen eta gizonen bardintasunaren arloan. Halanda ze, zenbait neurri arautzen ditu bizitzaren esparru guztietan aukeren eta tratuaeren bardintasuna sustatu eta bermatzeko, eta, batez be, emakumeen autonomia sustatzeko eta posizino sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko.


4/2005 Legeak genero-perspektibea integrau gura dau EAeko podere publikoen jarduketan; gainera, legealdi bakotxean plan orokor bat onartzeko betebeharra ezarten deutso Eusko Jaurlaritzari; plan horretan, era koordinatu eta bateratuan, emakumeen eta gizonen bardintasunaren arloan podere guztien jarduketea bideratu behar daben interbentzino-ildoak eta erispideak jasoko dira.

Halanda ze, Lege horrek, eta hazaz batera emakumeen eta gizonen bardintasun eragingarrirako martxoaren 27ko 3/2007 Lege Organikoak, beharrezkoa dan markoa marrazten dabe erakunde eta administrazino publikoek neurriak garatu daiezan euren organizazinoen eta langileen kudeaketan bardintasuna sustatzeko.


Horretarako, BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN diseinatu dan BARDINTASUN-PLANAK esparru kontzeptual eta deskriptiboa ezarten dau emakumeen zein gizonen parte-hartzea sustatzeko proposamenetarako, eta, era berean, bardintasuna bultzatzen laguntzen dau erakundearen gobernantzan.

Proposamen batzuek izaera operatiboagoa eta egikaritza errazagoa ditue; beste batzuk zehazteko, izaera estrategiko nabarmena daukien ezkerro, lan-prozesu bat egin beharko da, urtean-urteango plan operatiboen ibilbidea eta egikaritza abiapuntu hartuta.

Plana lau ardatzetan egituratzen da, eta 2017-2020 urte-tartean gauzatzekoak diran 42 ekintza definiduten ditu; ekintzotako asko era jarraituan gauzatzen dira prozesu guztian.




MURGIBEk, plan hori indarrean dagoan bitartean, laguntza teknikoa emongo dau zeregin honeek eginez: gauzatutako ekintzen segmentua eta ebaluazioa eta urteko planen eta inplementetakoak diran neurrien diseinuaren akonpainamentua eta aholkularitza.



Agiri honetan, lehen egikaritza-urtean egindako lanaren emaitza nagusiak aurkezten dira. Praktikan, 6 hile izan dira 2017ko maiatzaren 2an onartu zanetik.

Ebaluazio jarraitua egin beharreko prozesua da, bai egikaritzan lortutako datuetatik abiatuta gauzatzen diran interbenzinoen balorazio kritikoa egiteko, bai etenbako hausnarketa eta hobekuntzaren ikuspegia hartzeko.

Informazio horri esker, oinarritzko hiru itauni erantzun ahal jake:



Ebaluazinoari esker, posible izango da emaitza positiboak ezagutzea eta hobetu beharreko ekintzak, edo egin leitekezan beste batzuk, identifikatea. Ondorioz, honeek dira ebaluazino-esparruak:

- Aurreikusitako ekintzen *betete-mailea*; espero izandako emaitzen alderako desbideraketea; planifikatutakoen aldean lortutako emaitzak.
- *Estaladura-mailea*: onuradunen kopurua onuradun potentzialen aldean.
- *Kalidade-mailea*, hau da, beharriaz zelan erantzun jaken, bai kuantitatiboki (artatutako personen kopurua), bai kualitatiboki (gogobetete-mailea).
- *Efizientzia*: Plana gauzatzeko erabilten diran baliabideak; giza, teknika- eta aurrekontu-baliabideak barruan hartzen dira.
- Plana sustatzen dauan lantaldearen funtzionamentua, kudeaketa-prozesuak eta horretarako ezarten dan koordinazioa.
- Aurreikusitako kronograma.

Jarraian, urteko segmentuaren laburpena aurkezten dogu.

## 2.- Gauzatutako ekintzen zerrendea

Atal honetan, Bardintasun Plana onartu zanetik martxan jarritako jarduerak baino ez dira aitatzen.

1. Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Plana (2017-2020) onartzea. 2017ko maiatzaren 2a.
2. Prensa-oharra: 2017ko garagarriaren 5a.
3. BARDINTASUNERAKO LANTALDEA batzarkide-taldeetara zabaltzea. Bilera 2 Bardintasunerako Lantaldeagaz gehi segimentuko bilera 2 MURGIBegaz.
4. Bardintasunerako Lantaldearen FUNTZIONAMENTU-ARAUDIA. (MURGIBek zirriborria prestetea).
5. Martxoaren 1a: Euskadiko Emakume Hautetsien LEHEN batzarra Gernikan.
6. Erakusketea: "Emakumeok. Gernikako Arbolaren Aurrean".
7. Urriaren 27a. EMAKUNDEren Berdintasunerako Foroan parte hartzea. "*Bardintasunaz berbetan*". Alberto Santanaren hitzaldia. Mendietaren margolanak.
8. Sensibilizazio elementu baterako testua onartzea: "*Eraso sexista bako gunea*". (zirriborria MURGIBek aurkeztu eban).
9. Gernikan garagarri-abuztuan jasotako bisitetan sexu aldagaia txertatzea (proba pilotua).
10. Irisgarritasunaren gainean genero-perspektibatik egindako azterketea berrikustea, MURGIBEren eskutik.
11. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA zemendiaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazinoarteko Egunean, Gernikako emakume-taldeen partaidetzagaz.
12. Puntu lila langile guztien sinadura digitaletan.

13. Entidadearen webgunea: sortutako gunea, BERDINTASUNA.
14. Ordutegiei eta deialdien epeei buruzko gomendioa, Batzordeetako buruen eskutik.
15. MUGARIK GABE ETA ACPP-BLB alkarteen harrera, Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordean adierazpen instituzional bat egiteko, El Salvadorren HBE arloan indarrean dagoan legeriaren aurka.
16. MURGIBE kontratatea planaren segmentua egiteko.
17. KOMUNIKAZINOA: Planagaz lotutako albisteak.

### 3.- Emaidza orokorrak. Betete-mailea

Atal honen helburua honako honeek ezagutzea da: aurreikusitako ekintzen betete-mailea eta 2017ko Plan Operatiboan planifikatutakoaren aldean izandako desbideraketea.

Bizkaiko Batzar Nagusien Bardintasunerako I. Plana (2017-2020) 4 jarduketa-arlok edo -esparruk osotzen dabe, horreek 42 neurri deskribiduten ditue guztira.

2017. urterako, plan operatibo bat definidu zan, martxan jartekoak ziran **17 neurri** zituana. Neurriok honela banatzen dira jarduketa-lerro bakotxean:

ARDATZA	HELBURUAK	2017ko EKINTZAK
GOBERNANTZA.- BARNE- KUDEAKETEA	➔ Bardintasun-plana bizirik mantendutea, plana kudeatzeko egiturak eta baliabideak sortuz.	9
	➔ Guneak sortu eta mantendutea bardintasunagaz lotutako informazioa eta agiriak trukatzeko.	
	➔ Erakundearen parte diran personen bizitza-arloen bateragarritasuna hobetzea, martxan ipiniz denporea kudeatzeko baliabideak eta estrategiak.	
	➔ Entidade hornitzaileak kontratetean, bardintasunaren alde daukien konpromisoa baloretea.	
	➔ Sexuka bereizitako datuak eskura eukitea.	
	➔ Irisgarritasunaren esparruko jarduketa-prozesuak genero-ikuspegitik berrikustea.	
ERAGIN SOZIALA	➔ Definidu, partekatu eta zabaltzea Erakundearen bardintasun-politika.	4
	➔ Herritarrek, eta batez be emakumeek, Batzarren jardueretan parte hartu daiela sustatzea (osoko bilkurak, batzordeak, etab.)	



eta haren eragina gizartean indartzea.

- Erakundeak bardintasunaren alde daukan konpromisoa ikusgai egitea eta bardintasunagaz bat datozen jarduerak sustatzea.


<p><b>KOMUNIKAZINOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Erakundeak bardintasunaren alde daukan konpromisoa jakinarazo eta zabaltzea.</li> <li>➤ Komunikazioan tratu ona eta errespetua sustatu eta zabaltzea.</li> <li>➤ Batzar Nagusiei buruzko jakinarazpenak, prensa-oharrak eta albisteak genero-ikuspegitik idatzi eta argitaratu daitezala jagotea.</li> </ul>	<p><b>2</b></p>
-----------------------------	---	-----------------

**EUSKAL  
ERAKUNDEETAN  
EMAKUMEA  
IKUSARAZOTEA**

- Bizkaiko lurralde historikoaren eraikuntzan emakumeek egin daben ekarpena ezagutarazotea.

**2**

17 ekintzetatik, %65 egikaritu dira. Horrek esan gura dau aurreikusitako hamar ekintzetatik sei baino gehiago behar bezala inplementau dirala eta 10etik bat bakarra geratu dala egin barik. Ondorioz, egikaritzamailea oso positiboa izan dala esan leiteke.



Orokorrean, betete-maila altuaz berba egin daiteke: guztiz eta partzialki osotutako ekintzak batuta, %88 egiten dabe.


ARLOAK	GAUZATUTA (G)			PARTZIALKI GAUZATUTA (PG)			GAUZATU BARIK (GB)			T	Betete-maila % (G+PG)
	zk.	%V	%H	zk.	%V	%H	zk.	%V	%H		
<b>Gobernantza.- barne-kudeaketea</b>	7	64	78	2	50	22	0	0	0	<b>9</b>	<b>60</b>
<b>Eragin soziala</b>	3	27	75	0	0	0	1	50	25	<b>3</b>	<b>20</b>
<b>Komunikazioa</b>	0	0	0	1	25	50	1	50	50	<b>1</b>	<b>7</b>
<b>Euskal erakundeetan emakumeak ikusarazotea</b>	1	9	50	1	25	50	0	0	0	<b>2</b>	<b>13</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>11</b>	<b>100</b>	<b>65</b>	<b>4</b>	<b>100</b>	<b>23</b>	<b>2</b>	<b>100</b>	<b>12</b>	<b>15</b>	<b>100</b>

Aurkeztutako taulan, hau nabarmentzen da:

- ✓ 17 ekintzetatik 15 betete-ehunekoaren barruan dagoz.
- ✓ Gauzatutako ekintzen portzentaje handiena daukien plan-arloak honako honeek dira: GOBERNANTZA–BARNE-KUDEAKETEA ETA ERAGIN SOZIALA.

- ✓ KOMUNIKAZINO arloak egikaritza-indizerik apalena dauka.
- ✓ Gauzatutako ekintzen %64 Gobernantza – Barne-kudeaketa arlokoak dira.
- ✓ Betete-indizerik handiena daukien ardatzak honeek dira: Gobernantza – Barne-kudeaketea eta Eragin soziala, %78 eta %75, hurrenez hurren.
- ✓ Euskal Erakundeetan EMAKUMEAK IKUSARAZOTEA ardatzak be betete-maila altua euki dau: ekintzen %50 gauzatu dira; beste %50a partzialki gauzatu da.

Beheko grafikoak ekintzen egikaritza-maila erakusten du, ardatz estrategikoen arabera. Bertan, modu bisualean aztertu leitekez aitatutako datuak.



### Gauzatu bako ekintzak.

Jarraian, 2017an egin barik geratutako bi ekintzak aitatzen dira, hurrengo plan operatiboan kontuan hartu daitezkan.

- ➔ **6. ekintza / ardatza: Eragin soziala.** Alkarren arteko jarduerak egitea beste erakunde batzukaz, dagozan baliabideak aprobetxatzeko (lankidetzak-akordioak egitea honeekaz: EUDEL, Basqueskola, BFA...).

- **8. ekintza / ardatza: Komunikazinoa.** *Topaguneak sustatzea Bazar Nagusien barri emoten daben hedabideetako profesionalakaz, komunikazino arloko bardintasunaz jarduteko. 2018an egitea erabagi da.*
- Era berean, bi ekintza bateratzea erabagi da, helburu bera daukiela ulertu dalako: 2. ardatza/7. ekintza eta 4. ardatza/7. ekintza. MURGIBEk barriro be idatziko dau 2018ko Plan Operatibora begirako dokumentua.

### **Bardintasunerako Lantaldeak gauzatutako ekintzen balorazinoa**

Bardintasun Plana 2017ko maiatzaren 2an onartu zanetik denpora laburra igaro dala kontuan hartuta, ona izan da langileen eta talde politikoen prestasunari eta inplikazinoari buruzko balorazinoa.

Ekintza asko egin dira, eta lan-prozesua oso positiboa izan da orain arte, kontrako jarrerarik eta erresistentziarik bakoa.

Esaten danez, ez da inplikazino bera egon talde politikoen aldetik.

Zenbait neurri egin barik geratu badira be, jarritako baliabideek eta ahaleginek ederto bete ditue aurreikuspenak, eta aurrera egiteko aukerea emon dabe emakumeen eta gizonen bardintasunaren kudeaketea Erakundean ezarteko bidean.

Bardintasunerako Lantaldea, bigarren etapa honetan, 6 emakumek eta 4 gizonek osotzen dabe.

#### **PARTAIDEAK**

- |    |                           |                             |
|----|---------------------------|-----------------------------|
| 1. | Iñigo Camino García       | <i>Komunikazinoa</i>        |
| 2. | Ainara Arranz Nuñez       | <i>Abellaneda</i>           |
| 3. | Javier Madariaga Zamalloa | <i>Legelari aholkularia</i> |
| 4. | Ainhoa Erauskin Garai     | <i>Gernika</i>              |
| 5. | Mireia Liaño Miguélez     | <i>Administrazinoa</i>      |

**BATZARKIDE-TALDEAK**

- |     |                         |                                      |
|-----|-------------------------|--------------------------------------|
| 6.  | Ana Otadui Biteri       | <i>Batzarretako lehendakaria</i>     |
| 7.  | Begoña Gil LLanos       | <i>PSEko batzarkidea</i>             |
| 8.  | David Lopategi Escudero | <i>EH BILDUko batzarkidea</i>        |
| 9.  | Eduardo Andrés Ricoy    | <i>PPko batzarkidea</i>              |
| 10. | Asun Merinero Sierra    | <i>Podemos Bizkaiako batzarkidea</i> |

Lantalde horrek barne-segimentuko bilerak egin ditu aldian behin, MURGIBegaz koordinauta (laguntza teknikoa emoten dauan entidadea).

### 3.- Adierazleen segmentua

Jarraian, martxan jarritako prozesuen eta haren emaitzen adierazle nagusiak erakusten dira.

Planaren ibilbidea oraindino laburra dan ezker, ez dira jaso eraginaren adierazleak. Halanda be, hurrengo urteotan beharrezkoak diran tresnak garatuko dira gauzatutako ekintzek generoan izandako eragina neurtzeko.

#### 01. ARDATZA: GOBERNANTZA-BARNE-KUDEAKETEA

Prozesu-adierazleak	Emaitza-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Bardintasunerako Lantalde barria eratu da.</li> <li>✓ 2017ko plana gauatzeko esleitutako aurrekontua: 100.445,89 €, hau da, Bizkaiko Batzar Nagusien urte osoko aurrekontuaren %1,14.</li> <li>✓ Gauzatutako ekintzen %50k zerikusia dauka gobernantzaren hobekuntzeagaz; gainontzekoak sensibilizaziorako dira.</li> <li>✓ Genero-perspektibea berrikusi da egindako irisgarritasun-azterketan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ekintzen %64 guztiz gauzatu da.</li> <li>✓ Bardintasunerako Lantaldearen 4 bilera. Batez besteko parte-hartzea: 7 persona (5 emakume eta 2 gizon).</li> <li>✓ 7 albiste argitaratu dira Bardintasun Planaren inguruan.</li> <li>✓ Sexuaren aldagaia jaso da Gernikako Batzarretxeko bisitarien erregistroan, 2017ko garagarri eta abuztu bitartean.</li> <li>✓ Lantikek 5 eginbidetan egindako aldaketak: kontaktu-formularioa; arau-proiektuetarako alegazinoen/proposamenen formularioa; aurrekontu orokorren proiekturako alegazinoen formularioa; Eskaera, kexa, iradokizun edo erreklamazioen PDFa; atal barria webgunean, bardintasunagaz lotutako informazioa eta albisteak jarteko. Atal barri hori mantendutea.</li> </ul>

#### 02. ARDATZA: ERAGIN SOZIALA

Prozesu-adierazleak	Emaitza-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Euskadiko Emakume Hautetsien lehen batzarra.</li> <li>✓ "Emakumeok" erakusketea egin da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ekintzen %75 guztiz egin da.</li> <li>✓ 121 emakumek hartu dabe parte Euskadiko Emakume Hautetsien batzarrean.</li> <li>✓ 120.000 personak –batez beste, %53 emakume eta %47 gizon– bisitatu eben "Emakumeok Gernikako Arbolaren aurrean" erakusketea garagarrilean eta abuztuan.</li> </ul>

Prozesu-adierazleak	Eraitza-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Puntu lila langile guztien sinadura digitaletan.</li> <li>✓ Adierazpen instituzional bat onartu da zemendiaren 25ean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Genero-indarkeria gaitzetsi da Bizkaian horrelako egoera bat jazo dan 1/1 kasutan.</li> </ul>

### O3. ARDATZA: KOMUNIKAZINOA

Prozesu-adierazleak	Eraitza-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Adierazpen-zirriborro bat egin da tratu ona emoteko deia egin daiten Batzarretako guneeetan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ekintzen %0 guztiz egin dira.</li> </ul>

### O4. ARDATZA: EUSKAL ERAKUNDEETAN EMAKUMEAK IKUSARAZOTEA

Prozesu-adierazleak	Eraitza-adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Emakume Hautetsien Batzar Orokorra egin da Gernikan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ekintzen %50 guztiz gauzatu da.</li> <li>✓ Gaien eta nazinoarteko egunen zerrenda bat dago eskura.</li> <li>✓ 121 emakume hautetsik proportzino honetan hartu eben parte: %60 herrikoak, %20 Bizkaikoak, eta %20 EAEkoak eta Espainiakoak.</li> </ul>